



## **OROZKOKO UDALA**

### **UDAL FUTBOL ZELAIAREN ERABILERA KO PREZIO PUBLIKOARI BURUZKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA**

*(1997/04/04ko 64 zb. B.A.O.ean argitaratua, 1998/12/31eko 252 zb. B.A.O..ean eta  
2019/12/17ko 240 zb. B.A.O.ean aldatua)*

#### **1. artikuloa**

Toki-Ogasunak araupetzen dauan Abenduaren 28ko 1988/39. Legearen 41.artikuloan eta 1989/5. Foru Arauaren 43 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaz bat etorritz, Orozkoko Udaletxeak Belar Artifizialez Estalitako Udal Futbol Zelaiaren erabilketarako prezio publikoak ezartzen ditu.

#### **2. artikuloa**

Belar Artifizialez estalitako Udal Futbol Zelaiaren erabilpenak zergakizuna zehaztuko dau.

Zerbitzuak edo instalazioak erabiltzen diren momentuan, edo baimenak badira, Udaletxeak onarpena emoten dauan momentuan, ordaintzeko beharrezana sortuko da.

#### **3. artikuloa**

Udal Futbol Zelaiko instalazioak erabiltzen edo gordetzen dituen pertsona natural edo juridikoak ordainkizuna egiteko beharturik dagoz.

#### **4. artikuloa**

Honako prezio publikoari dagokiozan tarifak hurrengo hauek izango dira (B.E.Z. barne):

- a) Futbol 11 entrenamendua (argi barik): 44,45 euro.
- b) Futbol 11 entrenamendua (argiarekin): 56,55 euro.
- c) Federatuen lehiaketa partidua: 96,94 euro.
- d) Federatuta ez dagozanen lehiaketa: 129,27 euro.
- e) Futbol 7 partidua (argiarekin): 48,48 euro.
- f) Futbol 7 partidua (argi barik): 40,37 euro.
- g) Futbol 7 entrenamendua (argi barik): 29,68 euro.
- h) Futbol 7 entrenamendua (argiarekin): 41,88 euro.
- i) 10 erabilpeneko bonua: %15eko deskontua.

Tarifa hauetan udal futbol zelaiaren erabilpena eta beste instalazio-akzesorioen, aldakegelen, dutxen eta abar erabilpena ere sartzen da.

Udalerriko auzokideak Udal Futbol Zelaia erabiltzen badabe, ezarritako tarifetatik %20a beheratuko jake.



## **OROZKOKO UDALA**

Udal Polikiroldegiko instalazioak zabalik egoteko ordutegitik kanpo egiten diren alogeraren tarifak %25ean gehituko dira.

### **5. artikuloa**

Orozkoko Udaletxeak Kirol Elkarte eta Taldeakaz hitzarmenak sustatu ahal izango ditu eta era berean, Eskolako Zentruagaz ere; guzti hau, kirol iharduera indartzeko asmoaz, bere ihardunari lagunduz eta egokituz jotzen diren beherapenak eta salbuespenak ezarriz.

### **6. artikuloa**

Instalazioak alokatzeko edo erabiltzeko aurkeztuten diren eskaeren gainean Udaletxeko Alkatek ebatziko dau; guzti hau, eskaeraren zirkunstantziak, instalazioen disponibilitate eta honetaz hitzamenegon egon ahal diren erreserbak kontutan harturik.

Gordetze-eskaera guztiak gitxienez hamabost egunetako aurrerapen bategaz aurkeztu beharko dira, Alkatek zuzendutako idatzi honetan hurrengo datu hauek zehaztu beharko dira.

- Eskarriegilearen Izena eta Abizenak, pertsona bat bada, eta baltzu.egoitza, pertsona juridikoa izango balitz.
- Erabiliko dan data eta ordua.
- Partiduak badira, txapelketa ofizial mota baterenbaten sartuta dagozan ala ez zehaztu beharko da eta eskarriegilea federaturik dagoan.

### **7. artikuloa**

Instalazioak erabili aurretik ordaindu beharko da prezio publikoa.

### **8. artikuloa**

Instalazioak zabaltzeko ordua eta euren erabilketarako jai egunak ekitaldi bakoitzaren hasieran Alkatek-Dekretuaren bidez zehaztuak izango dira.

### **9. artikuloa**

Ordenantza honen arau-hausteak eta Udal Futbol Zelaian guztiz debekaturik geratzen dana hurrengo arazo hauek izango dira:

- Aluminiozko takoak edo aldagarriak diren pastazko takoak dituen oinetakoakaz kirol-instalazioetan ibiltzea. Instalazioetan ospatzen diren partiduetan gomazko takoak daukazan oinetakoak erabili beharko dira.
- Instalazioen barruan erretzea edo edozein motatako garrik egitea.
- Instalazioen erabilpen ez egokia suposatzen dauan edozein aktuazio.

### **10. artikuloa**

9. artikuluan ezarritako arau-hausteak sortzen badira, 6,01 eurotik 150,25 eurora arteko zigorra ipini ahalgo da.

### **11. artikuloa**

Prezio publikoa ordaintzeak ez dau esan gura kalteak edo apurketak egiten badira eta behar diren ordainak ordaindu behar ez direnik.



## **OROZKOKO UDALA**

### **AZKEN XEDAPENA**

Honako Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dan hurrengo egunean sartuko da indarrean eta aplikatzen hasiko da.

Orozkon, 1997ko martxoaren 6an.

-Alkatea